

Bezereokiko harremanak

Hasteko, esan behar dugu guretzat, ACLE betaurrekoak saltzearen helburua bezereok berriak lortzea dela, tratu onaren ondorioz jende gehiago etorriko delako dendarra eta horrela, salmenta kopurua handituko dugu. Gainera, nahiz eta gure bezereok gehienak gazteak izan, urte guztietako bezereok edukitzea nahiko genuke, direla ume txikiak, direla agureak.

Egia da kanalekin ere zerikusirik handia duela gai honek, zeren eta ez dugu harreman berdina izango bezereok haien aurrean bagaude edota ordenagailu baten atzean. Haiei aurpegira hitz egiten badiegu, komunikazioa askoz hurbilagoa eta konfidantza handikoa izango da. Horregatik, ahal dugun zerbitzu edo harreman hobereana eskaintzen saiatuko gara.

Alde batetik, zerbitzu automatizatua eskainiko dugu webgunearen bitartez, bezereok gure eskabideak egin ditzaten denda fisiko batera joan behar izan gabe. Beste aldetik, denda fisikoan norbait eskainiko genuke bezereotan arreta jartzeko eta haien zalantzak argitzeko.

Haiekin komunikatzerako orduan, modu egokian egingo genuke, beti errespetuarekin baina nolabaiteko modu hurbilean, bezereok eroso sentitzeko eta konfidantza gehiago izateko.

Gainera, autozerbitzuak eta zerbitzu automatizatuak (denda-mota bat da non bezereok aukeratu ahal duten zer erosi eta nahi duen tokian jasotzea ditzakeen pertsonalki,) ere eskainiko genituzke, bezereok hobeto kokatzeko eta zerbait beharrekotan edo dudak edukitzerakoan, laguntza bezala erabiltzeko.